

AJANGIZKO UDALA

AJANGIZKO UDALAK 2019KO EKAINAREN 3AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Saioa Etxebarria Bilbao andrea

Zinegotziak:

*Ainhoa Odriozola Berriatua andrea
Doro Astoreka Ajuriagoikoa jauna
Iñigo Valencia Alacano jauna*

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2019ko ekainaren 3an, goizeko 9:30etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2019ko martxoaren 29an ospatutako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2019ko apirilaren 1ean ospatutako ez ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2019ko apirilaren 29an ospatutako ez ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-

- **Martxoaren 26ko 2019/040 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Idazkaritza artekaritza lanposturako honako baldintzak onartzea.



AJANGIZKO UDALA

- **Martxoaren 26ko 2019/041 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kultur Etxeko dinamizazio zerbitzuaren kontrataziorako proposamenen klasifikazioa: 1. KIRIK S.COOP.LTADA.; prezioa 18.150,00 euro (BEZ barne).
- **Martxoaren 28ko 2019/042 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 40 etxeko ur isuria bilatu eta konpontzeko lanetarako baimena.
- **Martxoaren 28ko 2019/043 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Burgobekoa baserrian, lehendik dagoen eraikin batean oinarritutako familiaren bizitegi-erabilera iraungia berrezartzeko beharrezko lanak burutzeko baimen baldintzatua.
- **Martxoaren 28ko 2019/044 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Harrera elkarteari 300,00 euroko laguntza ematea udal aurrekontuko 912.22602 partidaren gain.
- **Martxoaren 28ko 2019/045 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-3773-BT matrikuladun ibilgailuari zergaren salbuespena onartzea 2019 urtetik aurrera.
- **Martxoaren 28ko 2019/046 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** VI-6436-O matrikuladun ibilgailuari zergaren salbuespena onartzea 2019 urtetik aurrera.
- **Martxoaren 28ko 2019/047 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Korrika 21en parte hartzeko udalak 726 euroko kilometroa erostea (BEZ barne).
- **Martxoaren 28ko 2019/048 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Martxoaren 28an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/06 faktura erlazioa onartzea.
- **Martxoaren 29ko 2019/049 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2019ko 1. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea.
- **Apirilaren 4ko 2019/050 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 13, Aristieta baserrian bizitza zaharberritu eta bertan landetxe erabilera ezartzeko lanetarako baimen eskaerari ezetza.
- **Apirilaren 5eko 2019/051 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Hauteskundeetarako publizidade eta ekintzetarako tokiak zehaztea.
- **Apirilaren 8ko 2019/052 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kultur Etxeko dinamizazio zerbitzuaren esleipena KIRIK, MONITORES DEPORTIVOS.Coop. Ltada enpresaren alde onartzea, 15.000.00 euroko (gehi %21 BEZ) prezioan.
- **Apirilaren 8ko 2019/053 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ondare erantzunkizun espedientearen tramitazio laburtuari hasiera ematea.
- **Apirilaren 9ko 2019/054 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Central Forestal S.A. enpresari, Arratzuko 11. Poligonoko 108, 109,110 eta 111 partzeletatik egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen (Aureategi baserri aurretik, Burgo-bekoa baserri ondotik "txarkoko errebueltara).
- **Apirilaren 11ko 2019/055 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.ek 2019ko martxoaren 12an aurkeztutako birjarpenerako errekurtsuari ezetza.
- **Apirilaren 17ko 2019/056 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Apirilaren 17an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/07 faktura erlazioa onartzea.
- **Apirilaren 17ko 2019/057 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalak Mendieta 66 eta 67an kokatutako garajeei dagokien kuotari dagokionez, jabe elkarteak aurkeztutako gastuei udalak jarritako kopurua kenduta, jabe elkarteari 16,81 euro erreklamatzeari.
- **Apirilaren 23ko 2019/058 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko 3. poligonoko 116 partzelatik egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen (Argana-Artotxa-Solaurren erreka ondotik-Arritze zubia-Maier aurretik-Arabieta).
- **Apirilaren 23ko 2019/059 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko 1. Poligonoko 321 partzelan animalien babeserako eraikina egiteko baimen baldintzatua.



AJANGIZKO UDALA

- **Apirilaren 24ko 2019/060 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Aristieta baserrian piper txorizeroak eta barazkien kontserbak ekoizteko instalakuntza eraikitze baimen baldintzatua.
- **Apirilaren 25eko 2019/061 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Udalerriko bide publikoan itxitako hondakinak Garbiguneetara eramane ahal izateko, Ajangizko Udala eta Garbikerren arteko elkarlan-hitzarmena onartzea.
- **Apirilaren 26ko 2019/062 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2020ko maiatzaren 21a Asentzio eguna, Udalerri osorako jaiegun modura proposatzea.
- **Maiatzaren 2ko 2019/063 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maiatzaren 2an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/08 faktura erlazioa onartzea.
- **Maiatzaren 6ko 2019/064 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Excursiones Túñez Sánchez S.L. enpresak ondare erantzukizun espedienteari aurkeztutako alegazioak onartzea.
- **Maiatzaren 9ko 2019/065 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxuko biztanleguneko C-2 lursaileko etxebizitza bakarreko eraikuntzari lehen erabilerarako baimena ematea, Kanpantxu auzoko 87 zenbakia emanez.
- **Maiatzaren 9ko 2019/066 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Herri bide hegalean inausketa eta garbiketa Desbroces Ordorika enpresari esleitzea 5.357,00 euroko prezioan.
- **Maiatzaren 16ko 2019/067 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maiatzaren 16an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/09 faktura erlazioa onartzea.
- **Maiatzaren 17ko 2019/068 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maiatzaren 31rako, Barrutia herri ikastetxeko jairako, udaletxeko musika ekipoa erabiltzeko baimena.

3.- 2019KO ORDAINSARIEN IGOERAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretuak, sektore publikoaren esparruan ordainsarien arloko premia-azko neurriak onartu ziren (2018ko abenduaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Lege dekretu horren 3. Bi artiluak, langile publikoen 2019 urteko ordainsarien igoerak arautzen ditu: *“2019. Urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarietarako ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneousotasunari lotuta, bai langileei euren dagokienez, eta bai langilearen antzinatasunari dagokienez ere; horretarako ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, Gizarte-ekintza arloko gastuak irabazkiak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansarietarako desberdinak, orobat; lansarien helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langilearen inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetzea da.*

Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste 0,25eko soldata igoera entsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundera izanik, igoera hein Berean apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera, Era horretan, igoera orokorrean emaitzak honako hauek izango dira:

BPGd 2,1aren berdina: % 2,30

BPGd 2,2aren berdina: % 2,35



AJANGIZKO UDALA

BPGd 2,3aren berdina: % 2,40

BPGd 2,4aren berdina: % 2,45

Atal honetan xedatutakoa dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urteko argitaratzen duen BPFd-ren balio kalkulu aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldezturik 2018ko martxoaren 9ko enplegu Publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie”.

Aipatutakoa kontutan hartuta, eta Ajangizko Udaleko 2019rako aurrekontuan partida nahikoa dagoela kontutan hartuta, bertaratutako zinegotziek aho batez adosten dute:

Lehenengo.- 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, langileen ordainsariak legeztan onartzen den gehenekora igotzea, hau da, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %2,25.

Bigarren.- Abenduaren 21eko 24/2018 Errege Dekretuak 3. Bi artikuluko bigarren multzoari dagokionez, 3. Bi artikuluan xedatutakoaren arabera, igoera hori, dagokionean, 2019ko uztailearen 1etik aurrera ghitzea.

4.- BILBOKO 3. ZENBAKIDUN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZITEGIAK EMANDAKO 117/119 EPAIAREN BERRI EMATEA.-

Alkate Udaltzaburua, Bilboko 3. Zenbakidun administrazioarekiko auzitegiak emandako 117/119 epaiaren berri eman du. Roman Etxeandia Zabala jaunak Ajangizko Udal Osoko bilkurak 2016ko apirilaren 20an Josefina Erkoreka Txertudi andrea eta Ajangizko Udaltzaburua arteko bideen permutaren akordioaren aurkako administrazioarekiko errekurtsioa jarri zuen.

Bilboko 3. zenbakidun administrazioarekiko auzitegiak 2019ko maiatzaren 13an 117/119 zenbakidun epaia eman du eta Etxeandia jaunak jarritako errekurtsioa ez du onartu, udalak hartutako erabakia Zuzenbidearekin bat datorrela aldarrikatuz.

Bertaratutako zinegotziek jakintzat jotzen dute beraien burua.

5.- AUZITEGI GORENEKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAKO 5. ATALAK EMANDAKO 695/2019 EPAIAREN BERRI EMATEA.-

Alkate Udaltzaburua, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien salako 5. Atalak emandako 695/2019 epaiaren berri eman du.

Estatuaren abokatuak, Euskal Atonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2015eko abenduaren 28an emandako epaiaren aurka kasazio errekurtsioa jarri zuen, Ajangizko Udaltzaburua 2014 urterako onartutako aurrekontua aurkaratuz, bertan jasotako Udaltzaburuko partidari dagokionez.



AJANGIZKO UDALA

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko auzien salako 5. Atalak, Madrilen 2019ko maiatzaren 27an emandako 695/2019 epaian, kasazio errkurtsioak oinarririk ez duela adierazi du, eta ondorioz Euskal Atonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2015eko abenduaren 28an 433/2014 zenbakidun errekurtsioan emandako epaia irmo bilakatzen da, Ajangizko Udalak onartutako 2014 urteko aurrekontua baliiodun aldarrikatuz.

Bertaratutako zinegotzien jakintzat jotzen dute beraien burua.

6.- UDALERRIKO BIDE PUBLIKOAN ITXITAKO HONDAKINAK GARBIGUNEETARA EROAN AHAL IZATEKO, AJANGIZKO UDALA ETA GARBIKERREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, BEHAR BADA.-

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailearen 28ko 22/2011 Legean eta Hondakinen Kudeaketa Integralerako Planean xedatutakoa betetzeko asmoz eta beti ere hondakinen kudeaketa jasangarria helburu izanda, minimizazio eta balorazio ehunekoak handitzea lortu behar da.

Ajangizko Udalak hiri-hondakinen kudeaketaren aldeko apustua egina du azpaldi, eta horren adierazgarri, hilean behin udalak egiten duen hiri-hondakinen bilketa da, gero Garbikerrek kudeatzen duten Gernikako Garbigunera eramateko.

2018ko abenduaren 18an 50. Gobernu Kontseiluaren aginduz, Garbikerrek Bizkaiko garbiguneen sarea artatu, kudeatu eta ustiatzen du. Horrez gain, kudeaketa-agindu horren arabera, garbiguneen sarearen jarduketa-araudia eta jarduerari buruzko arauak ere onartzen ditu.

Ajangizek bilketa egiterakoan baina, baimendutako kudeatzaileek tratatu beharreko produktuak aurkitzen ditu bide publikoan. Hondakin horiek Garbiguneetara eraman behar dituztenak pertsona partikularrak badira ere, Garbiguneei buruzko gaur eguneko Araudiaren 1. xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera, badago tokiko erakundeekin hitzarmenak sinatzerik, garbiguneetara eraman daitezkeen hondakinak behar den moduan kudeatu ahal izateko.

Udalaren ikuspuntutik bide publikoan jasotzen diren hiri-honakin horiek Garbigunera eramateko aukera izatea behar beharrezkoa dela kontuan hartuta, 2019ko apirilaren 25eko 2019/061 Alkate dekretu bidez udalerriko bide publikoan itxitako hondakinak garbiguneetara eroan ahal izateko, Ajangizko Udala eta Garbikerren arteko hitzarmena onartu zen.

Hitzarmena onespenerako aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

7.- 2019KO 1. HIRUHILEKO BERANKORTASUN TXOSTENAREN BERRI EMATEA, BEHAR BADA.-


Idazkari Kontuhartzaileak, 2019ko 1. hiruhileko ordainketa epeei buruz 2019ko apirilaren 15ean egindako txostena aurkeztuta eta Ogasun Batzordeak 2019ko apirilaren 17an emandako oniritzia ikusita, bertaratutako zinegotziak jakitun geratzen dira.

Txostenaren emaitzaren arabera, Ajangizko Udaleko 2019ko 1. hiruhileko datuek zera adierazten dute:

1. Hiruhilekoan:



AJANGIZKO UDALA



- 1) Ajangizko Udalak ordainketen %100 legezko epean burutu dituela
- 2) Ajangizko Udalaren ordainketa epearen media 4,03 egunekoa da.
- 3) Hiruhilekoaren bukaeran ordaintzeko dauden fakturen %100 ordainketarako legezko epea barruan daudela.

8.- 2019KO 1. HIRUHILEKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA.-

Idazkari Kontuhartzaileak 2019ko 1. hiruhileko aurrekontuaren exekuzioari buruzko 2019ko apirilaren 16an egindako txostena aurkeztuta eta Ogasun Batzordeak 2019ko apirilaren 17an emandako oniritzia ikusita, bertaratutako zinegotziak jakitun geratzen dira, honako dokumentazioa aztertu ondoren:

- Diru-sarrera eta gastuen exekuzio egoera
- Diru-zaintzako egoera
- 2019ko martxoaren 31rarteko Kontaketa Akta
- Hornitzaileei batz besteko ordainketa epea
- Hornitzaile eta kontratistekin egindako eragiketen laburpena

9.- 2019 URTEAN EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Alkate udalburuak, ondoren transkribatzen den, 2019 urtean Euskara ikastaroak egiteko dirulaguntza deialdia eta oinarri arautzaileak aurkeztu ditu.

Azaltzen duenaren arabera, 2017ko abuztuaren 7tik indarrean dagoen Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzan eta dirulaguntzen plan estrategikoan oinarrituta burutu da proposamena.


Proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

1.- Xedea.

Norgehiagoka erregimenean, 2019ko ekitaldian euskara ikastaroetan matrikulatutako partikularrei matrikula horietarako dirulaguntzak arautzea da oinarri hauen xedea.

Dirulaguntzaren xedearekin zuzenean ala zeharka lotuta dauden gastuek jasoko dute dirulaguntza, Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzan zehaztutako baldintzetan.



AJANGIZKO UDALA

Euskara ikastaroetako matrikulak duen kostuaren %100erartekoa izan daiteke dirulaguntzaren zenbatekoa.

Eskabide kopuruaren arabera zenbatekoa erabilgarri dagoen eta deialdian adierazi den aurrekontuaren zenbatekoa baino altuagoa izango bada, horien guztien arteko hainbanaketa egokia egingo da.

2.- Onuradunak.

Onuradunak, 2019 urtean zehar euskara ikastaroak egiten dituzten Ajangizko biztanleak izango dira.

Deialdi honetan baldintza modura jasotzen da:

- Euskara ikasteko matrikulak duen kostuaren %100erartekoa izan daiteke dirulaguntzaren zenbatekoa.

- Eskatzailea Ajangizen erroldatuta egon beharko da.

Dirulaguntza jasoko dutenak salbuetsita daude jasotako dirulaguntzaren zabalkundea ematek.

3.- Dirulaguntzaren gehieneko zenbateko osoa.

Deialdi honetara bideratutako kreditua 1.000 €koa da, 341.480.02 aurrekontu atalaren pentzura.

Dirulaguntza hauek eta beste erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak bateragarriak dira, dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzan zehaztutakoaren arabera.

4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskaerak Ajangizko Udaleko Erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, Mendieta auzoa z.g.

Eskaerak aurkezteko eredu ofiziala erregistro-bulegoan edo Ajangizko Udaleko web orrian eskuratu daiteke: www.ajangiz.eus.

Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik abenduaren 10erarte izango da, bi egun horiek barne. Eepearen ezken eguna jaia balitz, eskaerak aurkezteko epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

5.- Salbuespenak.

Eskatzaileek ezin izango dituzte dirulaguntzak jaso, baldin eta instantziak aurkeztu behar direnean Udalaren Ogasunarekin zorretan badaude edo aurretiaz jasotako dirulaguntzen ziurtagiriak aurkeztu ez badituzte; era berean, Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzan jasotzen diren arrazoiengatik ere ezingo dituzte laguntza horiek jaso. Ziurtagiriaren aurkezpen hutsak ez du esan nahi ziurtagiri horiek egokiak direnik.



AJANGIZKO UDALA



6.- Eskaerarekin batera aurkeztu beharrko agiriak.

Eskaerarekin batera honako agiri hauen jatorrizkoa edo kopia konpultsatua aurkeztu behar da, indarrean dagoen legeari jarraiki:

- Eskatzailearen edo bere legezko ordezkariaren nortasun agiria.
- Adingabearen familia liburua, jaiotza ziurtagiri literal aedo nortasun agiria.
- Hirugarrenen alta inprimakia.
- Ordainagiria

Aipatutako dokumentuak udalaren esku baleude ez dira aurkeztu behar.

Eskaera aurkezteak, Dirulaguntza honen deialdi eta oinarriak eta Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasotako guztiaren onarpena suposatzen du.

7.- Dirulaguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntzak arauotan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaizkie, baldin eta ezarri diren aurrekontuaren geheinezko muga gainditzen ez bada. Eskabide guztien zenbatekoak aipatutako muga gaindituz gero, hainbanaketa egingo da horien guztien artean.

8.- Eskabideak balioztatzeko irizpideak.

Euskara ikasketak egiteko laguntza eskabideak ez dira balioztatuko. Ondorioz, arauotan ezarritakoa betetzen den egiaztatuko da dirulaguntza eskuratu ahal izateko, aurrekontuaren mugen barruan.

9.- Prozeduraren instrukzioa.

Prozeduraren organo instrukzio-egilea kultura zinegotzia izango da.

Dirulaguntza eskaerak jasota, Ogasun Batzordeak egingo du haien egiaztapen eta azterketa, Baliospen Batzorde bihurtuta.

Eskaerak aurkezteko epea igarota, eskaeran antzemandako hutsak konpontzeko eskatu ahal izango dio interesatuari Batzordeak; horretarako hiru laneguneko epea izango du, jakinerazpena egiten den biharamunetik hasita. Jakinerazpen horretan adieraziko zaio, emandako epean hutsa konpontzen ez badu eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ostean, eta hala badagokio, hutsak konpontzeko epea amaituta, Batzordeak txostena egingo du, gutxienez honako datu hauek jasoaz: ezetsitako eskaerak eta ezetzaren zergatia, aintzat hartutako eskaerak, horiei eman beharreko dirulaguntzaren kopurua eta oinarrietan aurreikusitako eskakizunak betetzen direlako ziuragiria.



AJANGIZKO UDALA

Organu bideratzaileak txostena jaso ostean, beste txosten bat egingo du, eta bertan bere esku duen informazioaren arabera onuradunek dirulaguntzak jasotzeko beharrezko eskakizun guztiak betetzen dituztela jarri beharko du.

Organu instruktoreak ebazpen proposamena egingo du, Balioespen Batzordeak emandako txostena oinarri hartuta, dirulaguntza ematen duen organuaren aurrean, Alkatearen aurrean alegia.

Ebazpenean berariaz, honako hau jasoko da:

- Eskatzaileen zerrenda*
- Dirulaguntzak jasoko dituzten onuradunak eta zenbatekoak*
- Gainerako eskaerak ezesteko zergatiak.*

Hala eta guztiz ere, aurkezteko epea bukatutakoan eskabideak aurkeztuta, deialdian gordailutatuko kreditua nahikoa izanez gero, ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean hurrenkera eskabidea ezartzeko irizpidea salbuetsi ahal izango da.

Prozedura ebazteko eta jakinerazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkeztutako epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinerazi ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin zaiela ulertuko dute, administrazioak erantzunik eman ez duelako.

Herri Administrazioen prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututakoaren arabera egindako da ebazpenaren jakinerazpena.

Berariazko ebazpen-egintzen kontra, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da egintza eman duen organuaren aurrean, edo zuzenean, administrazioarekiko auzietarako errekurtsua.

10.- Dirulaguntzen zenbatekoa eta ordainketa.

Eskatutako gastuen %100 finantzatu ahal izango da, oinarri hauetan xedatutako kreditu osoa muga dela.

Onuradun bakoitzari emango zaioen zenbatekoa Balioespen Batzordeak egindako txostenean zehaztutakoa izando da, zortzigarren oinarrian finkatutako irizpideak oinarri hartuta.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, ez bakarka ez beste dirulaguntza batzuei lotuta, ezin izango du gainditu, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.

Dirulaguntza ematen duen organuaren ebazpena eta gero ordainduko da dirulaguntza.

11.- Justifikazioa.

Jasotako dirulaguntzak egiaztatzeko ordainketa egin dutela egiaztatzen duen agiriak aurkeztu beharko dituzte onuradunek. Ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentua dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.



AJANGIZKO UDALA

12.- Arau haustek, zehazpenak eta itzulketak.

Arau-hausteei eta zehapenei buruzko guztia Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak xedatutakoaren arabera egingo da.

Itzulketarako prozedura eta arrazoiak dirulaguntzak arautzeko ordenantzan xedatutakoak izango dira.

13.- Araubide juridikoa.

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasotzen duena aplikatuko da.

10.- 2019 URTEAN UDAL KIROL INSTALAZIOETAN NORBERAK KIROLA EGITEKO DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Alkate udalburuak, ondoren transkribatzen den, udal kirol instalazioetan norberak kirola egiteko dirulaguntzak jasotzeko deialdia eta oinarri arautzailea aurkeztu ditu.

Azaltzen duenaren arabera, 2017ko abuztuaren 7tik indarrean dagoen Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzan eta dirulaguntzen plan estrategikoan oinarrituta burutu da proposamena.


Proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

UDAL KIROL INSTALAZIOETAN NORBERAK KIROLA EGITEKO DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

1.- Xedea.

Norgehiagoka erregimenean, 2019ko ekitaldian udal kirol-instalazioetan norberak kirol guztiak egiteko dirulaguntzak arautzea da oinarri hauen xedea, zelaietako alokairua eta udalean ematen diren kirolak izan ezik.

Dirulaguntzaren xedearekin zuzenean ala zeharka lotuta dauden gastuek jasoko dute dirulaguntza, Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzan zehaztutako baldintzetan.



AJANGIZKO UDALA

Kirol instalazioa dagoen udalean erroldatuta daudenek ordaindu behar duten tarifa eta erroldatuta ez daudenen ordaindu behar dutenaren arteko aldea izango da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Eskabide kopuruaren arabera zenbatekoa erabilgarri dagoen eta deialdian adierazi den aurrekontuaren zenbatekoa baino altuagoa izango bada, horien guztien arteko hainbanaketa egokia egingo da.

2.- Onuradunak.

Onuradunak, Ajangizko udalerrian kirol instalaziorik ez egoteraren ondorioz, kirola egiteko beste udalerrri batzuetako kirol-instalazioetara jo behar duten Ajangizko herritarrek izango dira.

Deialdi honetan baldintza modura jasotzen da, erroldatuta dauden herritarrentzat eta erroldatuta ez daudenenentzat tarifa desberdinak izatea.

Dirulaguntza jasoko dutenak salbuetsita daude jasotako dirulaguntzaren zabalkundea ematera.

3.- Dirulaguntzaren gehieneko zenbateko osoa.

Deialdi honetara bideratutako kreditua 5.000 €koa da, 341.480.05 aurrekontu atalaren pentzura.

Dirulaguntza hauek eta beste erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak bateragarriak dira, dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzan zehaztutakoaren arabera.


4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskaerak Ajangizko Udaleko Erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, Mendieta auzoa z.g.

Eskaerak aurkezteko eredu ofiziala erregistro-bulegoan edo Ajangizko Udaleko web orrian eskuratu daiteke: www.ajangiz.eus.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik abenduaren 10erarte izango da, bi egun horiek barne. Eepearen ezken eguna jaia balitz, eskaerak aurkezteko epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

5.- Salbuespenak.



AJANGIZKO UDALA

Eskatzaileek ezin izango dituzte dirulaguntzak jaso, baldin eta instantziak aurkeztu behar direnean Udalaren Ogasunarekin zorretan badaude edo aurretiaz jasotako dirulaguntzen ziurtagiriak aurkeztu ez badituzte; era berean, Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzan jasotako arrazoiengatik ere ezingo dituzte laguntza horiek jaso. Ziurtagirien aurkezpen hutsak ez du esan nahi ziurtagiri horiek egokiak direnik.

6.- Eskaerarekin batera aurkeztu behariko agiriak.

Eskaerarekin batera honako agiri hauen jatorrizkoa edo kopia konpultsatua aurkeztu behar da, indarrean dagoen legeari jarraiki:

- *Eskatzailearen edo bere legezko ordezkariaren nortasun agiria.*
- *Adingabearen familia liburua, jaiotza ziurtagi literal aedo nortasun agiria.*
- *Hirugarrenen alta inprimakia.*
- *Ordainagiria.*

Aipatutako dokumentuak udalaren esku baleude ez dira aurkeztu behar.

Eskaera aurkezteak, Dirulaguntza honen deialdi eta oinarriak eta Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasotako guztiaren onarpena suposatzen du.

7.- Dirulaguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntzak arauotan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaizkie, baldin eta ezarri diren aurrekontuaren gehieneko muga gainditzen ez bada. Eskabide guztien zenbatekoak aipatutako muga gaindituz gero, hainbanaketa egingo da horien guztien artean.

8.- Eskabideak balioztatzeko irizpideak.

Kirol instalazioetan norberak kirola egiteko laguntza eskabideak ez dira balioztatuko. Ondorioz, arauotan ezarritakoa betetzen den egiaztatuko da dirulaguntza eskuratu ahal izateko, aurrekontuaren mugen barruan.

9.- Prozeduraren instrukzioa.

Prozeduraren organo instrukzio-egilea kultura zinegotzia izango da.

Dirulaguntza eskaerak jasota, Ogasun Batzordeak egingo du haien egiaztapen eta azterketa, Baliospen Batzorde bihurtuta.

Eskaerak aurkezteko epea igarota, eskaeran antzemandako hutsak konpontzeko eskatu ahal izango dio interesatuari Batzordeak; horretarako hiru laneguneko epea izango du, jakinerazpena



AJANGIZKO UDALA

egiten den biharamunetik hasita. Jakinerazpen horretan adieraziko zaio, emandako epean hutsa konpontzen ez badu eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ostean, eta hala badagokio, hutsak konpontzeko epea amaituta, Batzordeak txostena egingo du, gutxienez honako datu hauek jasoz: ezetsitako eskaerak eta ezetzaren zergatia, aintzat hartutako eskaerak, horiei eman beharreko diru laguntzaren kopurua eta oinarrietan aurreikusitako eskakizunak betetzen direlako ziuragiria.

Organu bideratzaileak txostena jaso ostean, beste txosten bat egingo du, eta bertan bere esku duen informazioaren arabera onuradunek dirulaguntzak jasotzeko beharrezko eskakizun guztiak betetzen dituztela jarri beharko du.

Organu instruktoreak ebazpen proposamena egingo du, Baliospen Batzordeak emandako txostena oinarri hartuta, dirulaguntza ematen duen organuaren aurrean, Alkatearen aurrean alegia.

Ebazpenean berariaz, honako hau jasoko da:

- Eskatzaileen zerrenda
- Dirulaguntzak jasoko dituzten onuradunak eta zenbatekoak
- Gainerako eskaerak ezesteko zergatiak.

Hala eta guztiz ere, aurkezteko epea bukatutakoan eskabideak aurkeztuta, deialdian gordailutatuko kreditua nahikoa izanez gero, ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean hurrenkera eskabidea ezartzeko irizpidea salbuetsi ahal izango da.

Prozedura ebazteko eta jakinerazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkeztutako epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinerazi ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin zaiela ulertuko dute, administrazioak erantzunik eman ez duelako.


Herri Administrazioen prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututakoaren arabera egingo da ebazpenaren jakinerazpena.

Berariazko ebazpen-egintzen kontra, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da egintza eman duen organuaren aurrean, edo zuzenean, administrazioarekiko auzietarako errekurtsua.

10.- Dirulaguntzen zenbatekoa eta ordainketa.

Eskatutako gastuen %100 finantzatu ahal izangoda, oinarri hauetan xedatutako kreditu osoa muga dela.

Onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa Balioespen Batzordeak egindako txostenean zehaztutakoa izando da, zortzigarren oinarrian finkatutako irizpideak oinarri hartuta.



AJANGIZKO UDALA

Dirulaguntzaren zenbatekoa, ez bakarka ez beste dirulaguntza batzuei lotuta, ezin izango du gainditu, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.

Dirulaguntza ematen duen organuaren ebazpena eta gero ordainduko da dirulaguntza.

11.- Justifikazioa.

Jasotako dirulaguntzak egiaztatzeko ordaineta egin dutela egiaztatzen duen agiriak aurkeztu beharko dituzte onuradunek. Ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentua dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

12.- Arau haustek, zehazpenak eta itzulketak.

Arau-hausteei eta zehapenei buruzko guztia Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak xedatutakoaren arabera egingo da.

Itzulketarako prozedura eta arrazoiak dirulaguntzak arautzeko ordenantzan xedatutakoak izango dira.

13.- Araubide juridikoa.

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasotzen duena aplikatuko da.

11.- 2019 URTEAN FAMILIA UGARIEK DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Alkate udalburuak, ondoren transkribatzen den, 2019 urtean familia ugariak dirulaguntzak jasotzeko deialdia eta oinarri arautzaileak aurkeztu ditu.


Azaltzen duenaren arabera, 2017ko abuztuaren 7tik indarrean dagoen Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzan eta dirulaguntzen plan estrategikoan oinarrituta burutu da proposamena.

Proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

FAMILIA UGARIEK DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

1.- Xedea.

Norgehiagoka erregimenean, 2019ko ekitaldian Ajangizko familia ugarien aldeko dirulaguntzak arautzea da oinarri hauen xedea.



AJANGIZKO UDALA

Dirulaguntzaren xedearekin zuzenean ala zeharka lotuta dauden gastuek jasoko dute dirulaguntza, Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzan zehaztutako baldintzetan.

Dirulaguntzaren zenbatekoa honakoa izango da:

- *Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren tasaren %50eko dirulaguntza*
- *Kiroldegi publikoetan familia ugarien kiroldegiko txartela egiten dutenek, kiroldegia dagoen udalerriko erroldatuek ordaintzen duten kuotarekiko %50eko dirulaguntza*
- *5 plaza edo gehiagoko ibilgailuarengatik ordaindutako ibilgailuen gaineko zerga kopuruaren %25-a, ibilgailua Ajangizen erroldatuta badago.*
- *Ohiko etxebizitzaren gaineko ondasun higiezinaren gaineko kuotarekiko honako % dirulaguntzak:*
 - *3 seme-alabadun familia ugaria : %50*
 - *4 seme-alabadun familia ugaria: %60*
 - *5 edo gehiagoko seme-alabadun familia ugaria: % 90*

Eskabide kopuruaren arabera zenbatekoa erabilgarri dagoen eta deialdian adierazi den aurrekontuaren zenbatekoa baino altuagoa izango bada, horien guztien arteko hainbanaketa egokia egingo da.

2.- Onuradunak.

Onuradunak, 2018 urtean zehar Ajangizen erroldatutako dauden familia ugariak izango dira goian aipatutako kontzeptuek 2019 urtean sortutako gastuen arabera.

Deialdi honetan baldintza modura jasotzen da:

- *Familia ugaria osatzen duten kide guztiak herrian erroldatuta egon beharko dira.*
- *Dirulaguntzaren gehienezko kopurua 1. puntuari adierazitakoa izango da.*
- *Familiak Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen familia ugarien txartel eguneratua izan beharko du.*
- *Gainera:*
 - *Udal Gizarte Zerbitzuek ematen duten etxeko laguntza zerbitzuarekiko dirulaguntzaren kasuan:*



AJANGIZKO UDALA

- Dirulaguntza hau jasotzeko lehenengo eta behin zerbitzua bera jasotzeko eskubidea lortu behar da, horretarako gizarte laguntzarako teknikariaren txostena eta udal baimenarekin.

- Dirulaguntza zerbitzua mantentzen den bitartean mantenduko da.

- Ohiko etxebizitzaren ondasun higiezinaren gaineko zergarekiko dirulaguntzaren kasuan:

- Laguntza familiaren ohiko etxebizitza osatzen duen eraikinari aplikatuko zaio

- Laguntza hau jaso ahal izateko, familia unitatea osatzen duten kideetako inork ez du beste eraikin bat jabetzan izango

- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergarekiko dirulaguntzaren kasuan:

- Familia bakoitzeko ibilgailu bakar batek jaso dezake laguntza.

- Ibilgailua 5 plaza edo gehiagokoa izan beharko da.

- Ibilgailua Ajangizko udal ibilgailuen erroldan egon beharko da.

Dirulaguntza jasoko dutenak salbuetsita daude jasotako dirulaguntzaren zabalkundea ematetik.

3.- Dirulaguntzaren gehieneko zenbateko osoa.

Deialdi honetara bideratutako kreditua 800 €-koa da, 341.480.00 aurrekontu atalaren pentzura.

Dirulaguntza hauek eta beste erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak bateragarriak dira, dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzan zehaztutakoaren arabera.

4.- Eskabideak aurkezteko epea.


Eskaerak Ajangizko Udaleko Erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, Mendieta auzoa z.g.

Eskaerak aurkezteko eredu ofiziala erregistro-bulegoan edo Ajangizko Udaleko web orrian eskuratu daiteke: www.ajangiz.eus.

Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik abenduaren 10erarte izango da, bi egun horiek barne. Eepearen ezken eguna jaia balitz, eskaerak aurkezteko epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

5.- Salbuespenak.

Eskatzaileek ezin izango dituzte dirulaguntzak jaso, baldin eta instantziak aurkeztu behar direnean Udalaren Ogasunarekin zorretan badaude edo aurretiaz jasotako dirulaguntzen ziurtagiriak



AJANGIZKO UDALA

aurkeztu ez badituzte; era berean, Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasoko diren arrazoiengatik ere ezingo dituzte laguntza horiek jaso. Ziurtagiriak aurkeztu hutsak ez du esan nahi ziurtagiri horiek egokiak direnik.

6.- Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak.

Eskaerarekin batera honako agiri hauen jatorrizkoa edo kopia konpultsatua aurkeztu behar da, indarrean dagoen legerari jarraiki:

- *Eskatzailearen edo bere legezko ordezkariaren nortasun agiria.*
- *Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen familia ugarien txartela*
- *Hirugarrenen alta inprimakia.*
- *Ordainagiria edo burututako jardueraren ordainketa ziurtagiria*

Aipatutako dokumentuak udalaren esku baleude ez dira aurkeztu behar.

Eskaera aurkezteak, Dirulaguntza honen deialdi eta oinarriak eta Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasotako guztiaren onarpena suposatzen du.

7.- Dirulaguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntzak arauotan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaizkie, baldin eta ezarri diren aurrekontuaren gehiezkoko muga gainditzen ez bada. Eskabide guztien zenbatekoak aipatutako muga gaindituz gero, hainbanaketa egingo da horien guztien artean.

8.- Eskabideak balioztatzeko irizpideak.

Familia ugarietzako laguntza eskabideak ez dira balioztatuko. Ondorioz, arauotan ezarritakoa betetzen den egiaztatuko da dirulaguntza eskuratu ahal izateko, aurrekontuaren mugen barruan.

9.- Prozeduraren instrukzioa.

Prozeduraren organo instrukzio-egilea kultura zinegotzia izango da.

Dirulaguntza eskaerak jasota, Ogasun Batzordeak egingo du haien egiaztapen eta azterketa, Baliospen Batzorde bihurtuta.

Eskaerak aurkezteko epea igarota, eskaeran antzemandako hutsak konpontzeko eskatu ahal izango dio interesatuari Batzordeak; horretarako hiru laneguneko epea izango du, jakinerazpena egiten den biharamunetik hasita. Jakinerazpen horretan adieraziko zaio, emandako epean hutsa konpontzen ez bada eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela.



AJANGIZKO UDALA

Aurkeztutako eskaerak aztertu ostean, eta hala badagokio, hutsak konpontzeko epea amaituta, Batzordeak txostena egingo du, gutxienez honako datu hauek jasoz: ezetsitako eskaerak eta ezetzaren zergatia, aintzat hartutako eskaerak, horiei eman beharreko dirulaguntzaren kopurua eta oinarrietan aurreikusitako eskakizunak betetzen direlako ziuragiria.

Organu bideratzaileak txostena jaso ostean, beste txosten bat egingo du, eta bertan bere esku duen informazioaren arabera onuradunek dirulaguntzak jasotzeko beharrezko eskakizun guztiak betetzen dituztela jarri beharko du.

Organu instruktoreak ebazpen proposamena egingo du, Baliospen Batzordeak emandako txostena oinarri hartuta, dirulaguntza ematen duen organuaren aurrean, Alkatearen aurrean alegia.

Ebazpenean berariaz, honako hau jasoko da:

- *Eskatzaileen zerrenda*
- *Dirulaguntzak jasoko dituzten onuradunak eta zenbatekoak*
- *Gainerako eskaerak ezesteko zergatiak.*

Hala eta guztiz ere, aurkezteko epea bukatutakoan eskabideak aurkeztuta, deialdian gordailutatuko kreditua nahikoa izanez gero, ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean hurrenkera eskabidea ezartzeko irizpidea salbuetsi ahal izango da.

Prozedura ebazteko eta jakinerazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkeztutako epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinerazi ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin zaiela ulertuko dute, administrazioak erantzunik eman ez duelako.

Herri Administrazioen prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututakoaren arabera egindako da ebazpenaren jakinerazpena.

Berariazko ebazpen-egintzen kontra, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da egintza eman duen organuaren aurrean, edo zuzenean, administrazioarekiko auzietarako errekurtsua.

10.- Dirulaguntzen zenbatekoa eta ordainketa.

Eskatutako gastuen %100 finantzatu ahal izango da, oinarri hauetan xedatutako kreditu osoa muga dela.

Onuradun bakoitzari emango zaioen zenbatekoa Balioespen Batzordeak egindako txostenean zehaztutakoa izando da, zortzigarren oinarrian finkatutako irizpideak oinarri hartuta.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, ez bakarka ez beste dirulaguntza batzuei lotuta, ezin izango du gainditu, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.



AJANGIZKO UDALA

Dirulaguntza ematen duen organuaren ebazpena eta gero ordainduko da dirulaguntza.

11.- Justifikazioa.

Jasotako dirulaguntzak egiaztatzeko ordaineta egin dutela egiaztatzen duen agiriak aurkeztu beharko dituzte onuradunek. Ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentua dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

12.- Arau hausteak, zehazpenak eta itzulketak.

Arau-hausteei eta zehapenei buruzko guztia Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak xedatutakoaren arabera egingo da.

Itzulketarako prozedura eta arrazoiak dirulaguntzak arautzeko ordenantzan xedatutakoak izango dira.

13.- Araubide juridikoa.

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasotzen duena aplikatuko da.

12.- 2019 URTEAN UDAL ERAKUNDEEK ESKAINTZEN DITUZTEN KULTURA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Alkate udalburuak, ondoren transkribatzen den, 2019 urtean udal erakundeek eskaintzan dituzten kultura ikastaroak egiteko dirulaguntzak jasotzeko deialdia eta oinarri arautzaileak aurkeztu ditu.

Azaltzen duenaren arabera, 2017ko abuztuaren 7tik indarrean dagoen Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzan eta dirulaguntzen plan estrategikoan oinarrituta burutu da proposamena.

Proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

UDAL ERAKUNDEEK ESKAINTZEN DITUZTEN KULTURA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

1.- Xedea.

Norgehiagoka erregimenean, 2019ko ekitaldian Ajangizko udalak eskaintzen ez dituen kultura ikastaroak (musika, instrumentuak, hizkuntzak, argazkilaritza...) beste udal erakundeetan egiteko dirulaguntzak arautzea da oinarri hauen xedea.



AJANGIZKO UDALA

Dirulaguntzaren xedearekin zuzenean ala zeharka lotuta dauden gastuek jasoko dute dirulaguntza, Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzaren zehaztutako baldintzetan.

Ikastaroa eskaintzen duen erakundeak zehaztuta, udalerrri horretan erroldatuta daudenek ordaindu behar duten tarifa eta erroldatuta ez daudenen ordaindu behar dutenaren arteko aldea izango da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Eskabide kopuruaren arabera zenbatekoa erabilgarri dagoen eta deialdian adierazi den aurrekontuaren zenbatekoa baino altuagoa izango bada, horien guztien arteko hainbanaketa egokia egingo da.

2.- Onuradunak.

Onuradunak, Ajangizko udalerrian kultura ikastaroak ez eskaintzearen ondorioz, ikastaro hauek egieko beste udalerrri batzuetako udal erakundeetara jo behar duten Ajangizko herritarrak izango dira.

Deialdi honetan baldintza modura jasotzen da, erroldatuta dauden herritarrentzat eta erroldatuta ez daudenenentzat tarifa desberdinak izatea.

Dirulaguntza jasoko dutenak salbuetsita daude jasotako dirulaguntzaren zabalkundea ematera.

3.- Dirulaguntzaren gehieneko zenbateko osoa.

Deialdi honetara bideratutako kreditua 2.000 €-koa da, 334.48005 aurrekontu atalaren pentzura.

Dirulaguntza hauek eta beste erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak bateragarriak dira, dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzaren zehaztutakoaren arabera.

4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskaerak Ajangizko Udaleko Erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, Mendieta auzoa z.g.

Eskaerak aurkezteko eredu ofiziala erregistro-bulegoan edo Ajangizko Udaleko web orrian eskuratu daiteke: www.ajangiz.eus.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik abenduaren 10erarte izango da, bi egun horiek barne. Eepearen ezken eguna jaia balitz, eskaerak aurkezteko epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

5.- Salbuespenak.



AJANGIZKO UDALA

Eskatzaileek ezin izango dituzte dirulaguntzak jaso, baldin eta instantziak aurkeztu behar direnean Udalaren Ogasunarekin zorretan badaude edo aurretiaz jasotako diru laguntzen ziurtagiriak aurkeztu ez badituzte; era berean, Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzan jasotako arrazoiengatik ere ezingo dituzte laguntza horiek jaso. Ziurtagirien aurkezpen hutsak ez du esan nahi ziurtagiri horiek egokiak direnik.

6.- Eskaerarekin batera aurkeztu beharrko agiriak.

Eskaerarekin batera honako agiri hauen jatorrizkoa edo kopia konpultsatua aurkeztu behar da, indarrean dagoen legeari jarraiki:

- *Eskatzailearen edo bere legezko ordezkariaren nortasun agiria.*
- *Adingabearen familia liburua, jaiotza ziurtagi literal aedo nortasun agiria.*
- *Hirugarrenen alta inprimakia.*
- *Ordainagiria.*

Aipatutako dokumentuak udalaren esku baleude ez dira aurkeztu behar.

Eskaera aurkezteak, Dirulaguntza honen deialdi eta oinarriak eta Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasotako guztiaren onarpena suposatzen du.

7.- Dirulaguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntzak arauotan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaizkie, baldin eta ezarri diren aurrekontuaren gehieneko muga gainditzen ez bada. Eskabide guztien zenbatekoak aipatutako muga gaindituz gero, hainbanaketa egingo da horien guztien artean.

8.- Eskabideak balioztatzeko irizpideak

Kirol instalazioetan norberak kirola egiteko laguntza eskabideak ez dira balioztatuko. Ondorioz, arauotan ezarritakoa betetzen den egiaztatuko da dirulaguntza eskuratu ahal izateko, aurrekontuaren mugen barruan.

9.- Prozeduraren instrukzioa.

Prozeduraren organo instrukzio-egilea kultura zinegotzia izango da.

Dirulaguntza eskaerak jasota, Ogasun Batzordeak egingo du haien egiaztapen eta azterketa, Baliospen Batzorde bihurtuta.

Eskaerak aurkezteko epea igarota, eskaeran antzemandako hutsak konpontzeko eskatu ahal izango dio interesatuari Batzordeak; horretarako hiru laneguneko epea izango du, jakinerazpena



AJANGIZKO UDALA

egiten den biharamunetik hasita. Jakinerazpen horretan adieraziko zaio, emandako epean hutsa konpontzen ez badu eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ostean, eta hala badagokio, hutsak konpontzeko epea amaituta, Batzordeak txostena egingo du, gutxienez honako datu hauek jasoaz: ezetsitako eskaerak eta ezetzaren zergatia, aintzat hartutako eskaerak, horiei eman beharreko diru laguntzaren kopurua eta oinarrietan aurreikusitako eskakizunak betetzen direlako ziuragiria.

Organu bideratzaileak txostena jaso ostean, beste txosten bat egingo du, eta bertan bere esku duen informazioaren arabera onuradunek diru laguntzak jasotzeko beharrezko eskakizun guztiak betetzen dituztela jarri beharko du.

Organu instruktoreak ebazpen proposamena egingo du, Baliospen Batzordeak emandako txostena oinarri hartuta, diru laguntza ematen duen organuaren aurrean, Alkatearen aurrean alegia.

Ebazpenean berariaz, honako hau jasoko da:

- *Eskatzaileen zerrenda*
- *Dirulaguntzak jasoko dituzten onuradunak eta zenbatekoak*
- *Gainerako eskaerak ezesteko zergatiak.*

Hala eta guztiz ere, aurkezteko epea bukatutakoan eskabideak aurkeztuta, deialdian gordailutatuko kreditua nahikoa izanez gero, ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean hurrenkera eskabidea ezartzeko irizpidea salbuetsi ahal izango da.

Prozedura ebazteko eta jakinerazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkeztutako epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinerazi ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin zaiela ulertuko dute, administrazioak erantzunik eman ez duelako.


Herri Administrazioen prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututakoaren arabera egingo da ebazpenaren jakinerazpena.

Berariazko ebazpen-egintzen kontra, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da egintza eman duen organuaren aurrean, edo zuzenean, administrazioarekiko auzietarako errekurtsua.

10.- Dirulaguntzen zenbatekoa eta ordainketa.

Eskatutako gastuen %100 finantzatu ahal izangoda, oinarri hauetan xedatutako kreditu osoa muga dela.

Onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa Balioespen Batzordeak egindako txostenean zehaztutakoa izando da, zortzigarren oinarrian finkatutako irizpideak oinarri hartuta.



AJANGIZKO UDALA

Dirulaguntzaren zenbatekoa, ez bakarka ez beste dirulaguntza batzuei lotuta, ezin izango du gainditu, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.

Dirulaguntza ematen duen organuaren ebazpena eta gero ordainduko da dirulaguntza.

11.- Justifikazioa.

Jasotako dirulaguntzak egiaztatzeko ordaineta egin dutela egiaztatzen duen agiriak aurkeztu beharko dituzte onuradunek. Ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentua dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

12.- Arau hausteak, zehazpenak eta itzulketak.

Arau-hausteei eta zehapenei buruzko guztia Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak xedatutakoaren arabera egingo da.

Itzulketarako prozedura eta arrazoiak dirulaguntzak arautzeko ordenantzan xedatutakoak izango dira.

13.- Araubide juridikoa.

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasotzen duena aplikatuko da.

13.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Erregu eta galderarik aurkeztu ez danez, Idazkari-Kontuhartzaileak Ondare-ondasunen aitorpenerako ereduak banatu dizkie legegintzaldia bukatuko duten zinegotziei. Gaur ospatutako osoko bilkuraren onarpenerako ekainaren 12an ospatuko den bilkurarako aurkeztu ditzatela ohartarazten die.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da eguerdiko 11:00tan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA
Saioa Etxebarria Bilbao

BITARTEKO IDAZKARIA
Saioa Pineda Aranburu